

**Ariketa hau test mota bat da. Galdera bakoitzak 3 erantzun posible ditu, eta bakarra da zuzena.**

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aplikazio-eremua adierazten du:

- a) Toki-administrazioan bakarrik aplikatzen da.
- b) Foru- eta estatu-administrazioari aplikatzen zaio.
- c) Botere publikoekin lankidetzan diharduten euskal administrazio publiko, unibertsitate eta enpresa pribatu guztietan aplikatzen da.

2. Printzipio hauetatik, zeinek ez du bideratu behar berdintasunaren arloko jarduera?

- a) Tratu-berdintasuna.
- b) Ordezkaritza orekatua.
- c) Rolak eta estereotipoak sustatzea

3. Zein da ekintza positibo baten helburua?

- a) Emakumeak gizartean duen posizioa urteetan zehar hobetu dela egiaztatzea.
- b) Desberdintasun-egoerak konpentsatzea eta zuzentzea.
- c) Jendea aniztasuna errespetatzera bultzatzea.

4. Legearen arabera, zuzeneko diskriminazioa dago:
- a) Ixuraz neutroa den jokabide batek sexu bereko pertsona gehienei kalte egiten dienean.
  - b) Sexu jazarpen-gaiekin topo egiten dugunean.
  - c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.
5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea urte honetan onartu zen:
- a) 2015
  - b) 2007
  - c) 2005
6. Legearen arabera, jazarpentzat hartzen dira:
- a) Edozein jokabide iraingarri, umiliagarri, larderiatsu edo bortitz.
  - b) Pertsona bati kalte fisikoa eragiten dion edozein portaera.
  - c) Pertsona batek modu autoritarioan jokatzeko duenean.

7. Legearen arabera, ordezkaritza orekatutzat jotzen da sexu biek gutxienez \_\_\_\_\_ presentzia dutenean:
- a) % 40
  - b) % 30
  - c) % 50
8. Botere publikoek zein motako ekintza positiboko neurriak hartzen dituzte?
- a) Finkoak.
  - b) Aldi baterakoak.
  - c) Integralak.
9. Legeak gure gaitasunak garatu eta erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea dugula dio. Zer esan nahi du horrek?
- a) Ezerk eta inork ez dizula inposatzen nola jokatu behar duzun emakume edo gizon izateagatik.
  - b) Beti sexu bat argi eta garbi kaltetuta dagoela adierazten du.
  - c) Emakumeak lan-munduan integratu behar direla adierazten du.

10. Udalen baterako lana, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta besteak Erakundeak; printzipio honi dagokio:

- a) Ekintza positiboa.
- b) Lankidetzeta eta koordinazioa
- c) Tratu-berdintasuna.

11. Hauetako zein da tratu berdintasunaren printzipioko jarduketa bat?

- a) Emakume zein gizonek boterea eta baliabide ekonomiko eta sozialak eskura ditzaketela bermatzea.
- b) Pertsonen sexuan oinarritutako edozein diskriminazio debekatzea.
- c) Modu jakin batean pentsatzera eta jokatzera behartzen duten ohiturak ezabatzeko lan egitea.

12. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko bidean, botere publikoek emakumeen eta gizonen aniztasuna errespetatzen dela bermatu behar dute.

- a) Ekintza positiboaren printzipioa
- b) Aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzeko printzipioa.
- c) Tratu-berdintasunaren printzipioa.

13. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honela dio:

- a) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak sortu behar direla.
- b) Pertsona guztiak askeak eta berdinak garela duintasunari eta eskubideei dagokienez.
- c) Ideia politiko guztiak errespetatu behar ditugu, nahiz eta diskriminatzaileak izan.

14. Hauek dira euskal botere publikoak:

- a) Udalak eta foru-aldundiak
- b) Autonomia Erkidegoa
- c) "A" zein "B" aukerak zuzenak dira.

15. Gizonek eta emakumeek nahi dutena izan nahi dutela ziurtatzea (adibidez, kamioilariak edo jostunak); printzipio honi dagokio:

- a) Genero-ikuspegiaren integrazioa.
- b) Ordezkaritza orekatua.
- c) Aukera-berdintasuna.